



YAG KAPSULOTOMIA EGIN OSTEKO JARRAIBIDEAK

YAG kapsulotomian, laserra erabiltzen da kataraten kirurgiaren ostean ager daitekeen opakutasun kapsularra desagerrarazteko.

Lehenengo egunetan, “eulitxoak” ikus ditzakezu eta ikusmen lausoa izan dezakezu, tratatutako begian.

Laser-tratamendua egin eta hurrengo 5 egunetan, diklofenako-kolirio dosibakarra jarri behar duzu begian egunean 4 aldiz (gosaltzean, bazkaltzean, askaltzean eta afaltzean) tratamenduaren egunean bertan hasita.

Kolirioa kutxa batean dator, hainbat ontzixotan. Ontzixo bakoitzak egunean 4 dosi hartzeko beste tanta ditu. Egunaren amaieran, ontzixoa bota, eta, hurrengo egunean, beste bat hasi, tratamendua amaitu arte.

Hilabete inguru igarotakoan, oftalmologoarengana itzuli. Eman dizugun hitzorduan daukazu data eta ordua.